


Astekaria



elgoi



Hurrengo pausua, kanpandorrea

GAZTETASUNA ETA ESPERIENTZIA
ELGOIBARTARREN ZERBITZURA



Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua

BERGARA

MODULO III

Mekanikagintza

Administrazioa eta
Enpresen Gestioa
(Teknikaria)

2. BTI
3. FP II

2. BAG
COU

MODULO II

Administrazioa eta
Enpresen Gestioa
(Laguntzailea)

2. REM

F.P. II

Mekanika

Elektrizitatea

2. REM 3. BUP

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 4tik-18ra

ARGIBIDEAK: Ibargarai,2 • BERGARA • Tel 76 24 91

ORDUTEGIA: Goizez: 9,30-13. Arratsaldez: 3-5. 76 38 40

Herri honek

ALDAKETA behar du



HERRI BATASUNA

PELLO MENDIZABAL
JUAN KARLOS MARCOS
JABI AGIRRE
ASIER ZENGOTITA
IZASKUN AROZENA
IÑAKI ODRIOZOLA
ARNALDO OTEGI
ICIAR ELORZA
KOLDO ARANBURU
LOREA GOROSTIAGA
AGURTZANE BILBATUA
JULIAN AGIRRE
J.M. MENDIZABAL
JOSE OSORO
JORGE HERNANDO
ARANTZA ENDEIZA
JOSE LUIS BOLLAR

ORDEZKOAK

ANTTON IRIONDO
J. JOSE ETXEBERRIA
M. PILAR BERISTAIN

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementería,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Agirrezabala, Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Aitor Galarraga, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Diglosiaren atzapar luzeak!

Denon iritzian, azken urte hauetan euskararen aurrerakada handia izan da. Horren lekuko dugu, esate baterako, irakaskuntzan eta komunikabideetan hartzen ari den indarra eta presentzia.

Arazoa, ordea, ea gure buruetan ere gizartean soma daitekeen moduko aldaketa suertatzen ari den jakitea da. Ni ezezkoan nago.

Pasadizu bat kontatuko dizuet horren ilustragarri. Duela hiru bat urte, Errosario kaleko kutxa batek bere berritze-lanak egin eta gero, letrero guztiak euskaraz eta erdaraz jarri zituenean, euskarazko hitz bat ez zegoela ondo idatzia adierazi nien, eta komeni zela hura zuzentzea. Baietz, arrazoi nuela eta aldatuko zutela. Hiru urte pasa dira orduetik eta hitz horrek bere hartan jarraitzen du oraindik ere. Ez dute aldatu. Ez die minik ematen.

Badakit inolako sentimendu antieuskaldunik ez dagoela kutxa horretako arduradunen jokamoldean; baina, era berean, ezingo didazue ukatu kontraesana.

Lepoa egingo nuke errakuntza gaztelaniazkoa izan balitz, egun batetik besterako zuzendua zegoela! Baina euskaraz ez. Imajina zaitezte banketxe batean *ventanilla* jarri ordez, *bentanilla*

jartzen duela. (“Menudo zopenco” esango genuke).


Konklusioa da gure buruetan, gure inkonzientean, euskarari ez diogula opa gaztelaniari opa dioguna. Akats ortografikoak akats dira gaztelaniaz, baina euskaraz ez, dirudienez. Hizkuntza biei ez diegu maila bera eskaintzen. Euskara onartua dugu lagun artean, etxekoekin, txakurrekin, umeeekin... eta *sinbolo* modura (ai, *sinbolo* modura hartzearenaz zenbat eta zenbat hitzegin daitekeen!!!), baina praktikan ez dugu baloratzen, ez diogu garrantzirik ematen, ez baitiogu prestigiorik, ez botererik, ez funtziorik opa. Gaztelaniaz txarto egiteaz jende asko lotsatzen da oraindik; zenbatetan eta zenbatengan gertatzen da alderantzizkorik?

Oraindik ez gara konturatu hizkuntzak ere inperialistak direla. Diglosiaren seme-alabak izaten jarraitzen dugu, hizkuntza bat (gaztelania, noski) goi-mailakotzat hartzen baitugu, balore eta irudi kultural guztiekin, eta, bestea, geurea zoritxarrez, balore eta prestigiorik gabe.

Buru-aldaketan burruka handia daukagu oraindik. Eta hori lortzen ez dugun bitartean ez dugu inoiz benebenetako euskalduntzerik lortuko.

Andres Alberdi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





• Idatzi honen bidez, Errota-txok "Drogas: antes y después" izeneko mahain-guruaren berri ematera azaldu zen BARRENEko kazetari grafikoarekiko kexa azaldu nahiko luke. Aretora sartu aurretik, Errotatxoko kide batzuek argazkirik ez ateratzeko eskatu genion, mahainguru-ruan zegoen talde baten norma delako. Horregatik publikoaren argazkia baka-rrik atera zezala azaltzean, bertan buelta emanda alde egin zuen aretoan sartu gabe. Ekitaldiaren argazkia eta informazioa, beraz, ez ziren hurrengo alean agertu, nahiz eta gure ustez argi egon garrantzitsuena berria bera izan behar dela eta ez argazkia.

• Gazte bat etorri zaigu 106. zenbakian galderen atalean Udalak emandako erantzna gezurra dela esateko. Haren esanetan, aparkalekuaren ondoan dagoen belardi batean 5 farola daude belarrak izkutatuta. Aparkalekurako badira gezurra da lanak amaituta daudela eta Andikanoko bidean jartzeko badira, gezurra da ez dagoela argirik ipintzeko asmorik.

Sigma: "Etxe Haundia"

BARRENEk duela aste batzuk oso ondo azaltzen zuen SIGMA lantegiaren egoera, argazki eta guzti. Horregatik gutxi geratzen da esateko, baina ez nuke zorioneko etxe honek atea betirako itxi baino lehen, erreflexio txiki bat egin gabe gelditzerik nahi. Gogorra da 30 urte lantoki batean egin ondoren, kalean zaudela onartzea, baina hala da eta ez dago alternatibarik. 250 langileko plantilatik 210 kide goaz langabeziara zuzen zuzenean. Bagabiltza hainbat mobilizazio egiten, batean Banco Gipuzcoanora, bestean Eusko Jaurlaritzara, hurrengoan Diputaziora eta abar... esku hutsean ez gaitzaten utzi behintzat.

Mobilizazio hauetan egunero gabiltzanok ez gara ehunetik pasatzen, badirudi ehunetik pasatzen diren beste horiek ez dutela arazorik, beste "eskala" batean daude itxuraz, baina ziur nago "mobida" honen ondorioz zerbait aterako balitz, eta baietzean nago, bestela ez nintzateke ibiliko, lehenengoak kobratzeko orduan agertuko direla, beti besteen lepotik jasotzen ohituta daude eta. Giza errebin-dikazio guztietan batzuek aurpegia eman behar, gero beste guztiak ondorio horien etekinak jasotzeko. Badakit hau betiko leloa dela. Tamalgarria da baina aurpegi galanta eta lotsa gutxiko "listo" asko dago munduan! Baina esan beharra dago, hainbeste jokabide kaxkar eta mingarriren artean, gauza pozgarri eta abesgarriak ere ikusten ari garela, lankide zuzen eta benetakoak ezagutzen. Hauek dira ekin-dako bidetik jarraitzera animatzen gaituztenak.

Maite Izagirre (Sigmako langilea)

Hautagaiak eta euskara

Txalotzekoa da Elgoibarko Izarrak Udal Hauteskundeak direla eta azaldu duen ausardia, alderdi politikoei hautagai euskaldunak ipintzeko eskatuz.

Batetik, Elgoibarko Izarraren lana euskara zuzpertzeari denez, hor egongo dela "begirale eta lekuko" jakinerazten du. Abertzale ez diren alderdiek, ez dakigu zenbateraino kaso egingo dioten eta Abertzale direnak aldiz, etzuten begiraleen beharrik izan beharko. Abertzale alderdi bakoitzak, badu bere euskararekiko alternatiba eta aski litzateke horixe betetzea.

Bestalde, Udaletxeko euskararen erabilpenarekin ez naiz batere ados. Demokraziaren aurreneko urteetan, eta geroago ere bai, lehenengo euskaraz eta ondoren gauza bera eta berak erdaraz errepikatzen zuten, itzultzaile ere norberak eginez. Nire ustez, ulertzen ez duenak, bera arduratu beharko litzateke itzulpenaz, ez euskaraz lana egin duenak.

Gai honekin ari garenez, zera datorkit burura: gezurra badirudi ere, A. Ajubita alkate zela beratzi (9) urtetan zehar, ia pleno guztietara joan ohi nintzen eta euskararen erabilera guztiz ezberdina zen. Positiboagoa esango nuke nik. Orduan etzegoen oraingo moduko euskararen aldeko kanpainarik, baina plenoko gai guztiak, euskaraz aztertu, eihotu eta mamurtzen ziren. Ondoren akta idazteko garaian erdaraz moldatzen bazen ere. Askotan, alkate eta zinegotziek beren eztabaidetan luzatzen zirenean, han aritzen zen euskaraz ezer ulertzen etzuen D. Teodomiro mi-mi-mi-mi-mi eta Ajubita jaunak sarritan ixiltzeko esanaz: "D.Teodomiro! Estamos hablando nosotros!" Behin eta berriz ere errepikatuz.

Garai hartan honelatsuko erabilera bazuen euskarak, gaur zergatik ez?

Felix Etxeberria "Parapan"

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



ERRETRATU ZAHARRA



AZKUE



AZKUE



AZKUE

Pilar ikastetxean ikasi zuen kuadrila bat da aste honetako protagonista. Argazkiak **Manu Condek** eta **Joseju Ortiz de Landaluze** Pilarreko zuzendaria-riak ekarri dizkigute. Duela 25 urte, **1969an**, eskola bukatu zuteneko bi argazki ditugu batetik, eta bestetik, eskola bukatu zuteneko 25. urteurrena ospatzeko, kuadrila bera edo gehienak behintzat agertzen dira argazkian. Joan den larunbatean atera zuten Pilar ikastetxean argazkia, orduko zuzendaria, Jesus Mari Urrutia eta orduko tutorea Joseju Ortiz de Landaluze (gaurko zuzendaria) bertan daudelarik.

Ikus dezagun nortzuk diren A gela osatzen zutenak:

Atzean, ezkerretik hasita: **Josu M. Ezenarro, Alberto Fernandez, Josu Conde, Angel M. Beristain, Jose Luis Eguren** eta **Jose Luis Fernandez**.

Bigarren ilaran: **Javier Basurto, Alfonso Arnaiz, Angel Atristain, Juan Pedro Artetxe, Manu Conde, Jose Angel Etxabe, Juan Migel Aizpirtarte, Iñaki Ansola** eta **Iñaki Alzibar**.

Hirugarren ilaran: **Patxi Alvarez, Cristobal Beristain, Juan Beloki, Juan Bautista Clerigue, Anton Azpiazu, Luis Artetxe** eta **Carlos Arias**.

Eserita aurrean: **Jose Ramon Casado, Jose Ramon Armero, Javier Asenjo, Jose Joaquin Badiola, Martin Fernandez, Santos Diez** eta **Felipe Arozena**.

B gela osatzen dutenak:

Atzean: **Pedro M. Loiola, Jesus M. Juaristi, Vicente Olazabal, Jose Ramon Yagüe, Iñaki San Martin** eta **Pello Mendikute**.

Bigarren ilaran: **Jose Inazio Sarasua, Angel Javier Odriozola, Antonio Vicente, Agustin Prado, Juan Ignacio Ros** eta **Sebas Larrañaga**.

Hirugarren ilaran: **Angel M. Tobajas, Jose Ignacio Garaialde, Sebastian Suarez, Jose Manuel Tobajas, Jose Manuel Garcia, Jaime Rodriguez** eta **Jose Ignacio Uriguen**.

Aurrean eserita: **Antonio Garcia, Jesus M. Unzilla, Angel M. Larreategi, Ricardo Rodilla, Patxi Perez, Manuel Regil, Jose Ramon Soraluze** eta **Ignacio Iriondo**.

Argi berria elizan



■ ■ Eliza margotu, garbitu eta argiztatu egin dute, erabat itxuraldatuta geratu delarik.

Lan ugari egin behar izan dute eliza berritzen jardun duten langileek azken hilabeteotan. Jau-nartzeatarako ireki beharra zegoela eta, “erlojuaren kontra” lan egiten jardun dutela adierazi zigun Juan Manuel Encio arkitektoak, “beste hilabete bat ere beharko dugu gauzak ganoraz bukatzeko, detaile txikiak eta ikusten ez diren gauzak dira, baina egin beharrekoak”. BRUES S.A. enpresa izan da berritze lanen arduraduna eta Juan Manuel Encio arkitektoak zuzendu ditu. Teilatuaren, kupulen eta bobeden konponketarekin amaitu eta gero, barruko aldea atontzeari ekin zioten. Obren lehen fasea izan da oraingo hau, guztira 78 milioiko zenbatekoa izan duena. Bigarren eta hirugarren faseak ere aurreikusita daude baina gai hauetan agintari denez dirua, luzera

begira planteiatzen den zerbait da.

Barruko berrikuntzak

Haserako arkitektura errespetatuz, elementu baliotsuak azpimarratzea izan da une oro obren arduradunen jomuga. Barruko obrak burutzeko, abiapuntu bezala erretaula eta kupula hartu dira. Encio arkitektoaren esan-en arabera, “obrei ekin aurretik berauek izan dira gehien aztertu ditugunak. Berezko materialeak errespetatu egin dira eta berriak jarri behar izan direnean, haserako berdinak jarri dira: harria, harria behar zen tokian; egurra, egurra behar zen lekuan...”.

Argiztapen modernoa

Burdeoseko Jon Anton ingeniaria izan da San Bartolome eliza argiztatu duena. Guztiz modernoa da argiztatze kontzeptua, eliza modu indirektuan argiztatu da.

Joan den astebukaeran estrainekoz eman zuten meza eraberritutako parrokiari, larunbatean ohiko mezak eta igande goizean Jaunartzeak. Gotzaia present egongo den inaugurazioa, ordea, ez da aldare berria jarri arte egingo eta hori ez da aurrera begira arte gertatuko. Obren lehen fasea eta gero, eliza nola geratu den apreziatzeko datorren astean egunero, goizez eta arratsaldean, eliza barrua ikusteko aukera izango da eta hilaren 24ean obrei buruzko hitzaldia emango dute parrokiari J.M. Encio arkitektoak eta Donostiako arte sakroko batzordeko kide den J. M. Zunzunegik. Ireki aurretik zenbait argazki atera nahian elizara hurbildu ginen. Han harrapatu genituen pintoreak, garbitzaileak, argiztatze arduradunak, eta boluntario mordo bat azken ikutuak ematen.

● ● ● ● ● ●
Elizak zituen elementu baliotsuak ez ziren nabarmen-tzen argia falta zitzaiolako elizari
● ● ● ● ● ●

Fokorik ez da inon ikusten, giro ezberdin bakoitzerako argiztapen ezberdin bat aukeratu ahal izango da, 7 kolore tenperatura ezberdin daude eta ikuslearen begietara argi tonu doratuak, arrosak, horixkak... sortzen dituzte. 30 zirkuitotik gora daude, 25 kilowatio potentzia dute dena piztuta dagoeanean eta guztira 142 argi proiektore dira. Bobedak ere argiztatu egin dira margotu eta gero.

Konfesionarioak

Egurrezko konfesionario zaharrak balio handikoak zirenez, berritu egin dira. "Modu ezberdinean antolatu dira; lehen sei kubo independente ziren, eta orain bi bloke egin ditugu, bata bestearean parean. Konfesionarioen goiko aldean mueble teknikoak eraiki ditugu, bertan argiteria sistema osoa izkutatzeko". Hauen gainean, dekorazio modura, irudiak jarri dituzte. Ezker aldeko konfesionarioen gainean kalbarioa osatzen duten irudiak daude, Amabirjiña, Jesus gurutzatua eta San Juan. Eskuin aldean elizako ganbaratik erreperatutako lau santu: Elgoiba-



■ ■ Bataiarria sarrean kokatu dute. Bobedak margotu egin dira eta organoa afinatu.

● ● ● ● ● ● ● ●
Aste osoan zehar eliza irekita egongo da obren ostean nola geratu den ikusteko
 ● ● ● ● ● ● ● ●

rren oso maitatuta den Paduako San Antonio, Loiolako San Inazio, Xabierko Frantzisko eta Asizko Frantzisko. Garai batean Gipuzkoako Batzar Nagusietan Gipuzkoako eliza guztietan Inazioren irudia jartzera behartzen zuen arau bat omen zegoen eta anekdotikoa bada ere, hori izan da santu hori jartzeko arrazoia. Asizko Frantzisko Klaratarren oroimenez eta desagerutako Frantziskotarren komentuaren oroigarri bezala jarri dute.

Bataiarria eta alboetako aldareak

Liturjiaren gaiaren inguruan modak ere badu zeresanik. Bataiarria elizako sarrean jartzea aspaldiko ohitura omen da. Duela 20 bat urte aldarearen erdira eraman zuten eta orain haserako lekuan jarri dute berriro: elizan sartu eta ezkerretara. Koroaren azpiko bobeda zuriz margotu dute, organua afinatu egin da eta kantuen letrak proiektatzeko zegoen pantaila kendu egin dute. Orain harrizko zutabeak dira proiektzioen euskarri berriak.

Harrizko zutabeak garbitu egin dira eta hauen gainean elementu arrotzak ez jartzen saiatu dira. Aurrera begira berritzeko falta diren alboetako aldareak, bata animena eta bestea Inmakuladarena, berrituko dira. Barruko aldeetik bata arrosa omen da eta bestea, berriz, urdina.

Obrei buruzko hitzaldia eta bisitarako ordutegia

Eliza eraberritua kanpotik zein barrutik ikusteko aukera ezezik, 1993ko urrian hasi ziren konponketa guztien inguruko azalpen eta xehetasunen berri jakiteko aukera ere izango da hil honen 24ean, arratsaldeko 8etan Juan Manuel Encio arkitektoaren eta Donostiako Eliz Barrutiko Arte Sakroko batzordeko J. Maria Zunzunegiren ahotik. Parrokian izango den hitzaldia herritar guztiak joatera gonbidatuta daude. Era berean, datorren astean zehar elizak atak irekiko ditu obren ostean nola geratu den ikusteko aukera izateko. Bisitarako ordutegia goizez 8,30etatik 12,30ak arte eta arratsaldez 4etatik 8ak arte izango da.

BERRITZE LANAK	
1. FASEA ORAIN ARTE EGINDAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Teilatua, kupula eta bobedak berritu • Eliza barrua egokitu Kostua78 milioi
2. FASEA EGINGO DIRENAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpandorrearen (barrutik eta kanpotik) eta portikoen konponketa Kostua43 milioi
3. FASEA EGINGO DIRENAK	<ul style="list-style-type: none"> • Elizako lokalak eta fatxada guztia Kostua70 milioi
Aurrekontu osoa 190 miloi	

Erlojuaren menpe bizi al zara?



MARIA ARRILLAGA
81 urte, etxekoandrea

Bai, orduari begiratu ein bihar bestela, akabo! Bazkarixa ipintzeko, jubilaue-tara etortzeko beti ordua ipinitxa, baina horregatik ni trankil bizi naiz.



JOSEBA ESNAOLA
29 urte, irakaslea

Erlojurik gabe bizi naiz. Ez dot inoiz euki. Lanian tinbriakin giatzen naiz eta kalian beti daukat alboan bateonbat. Batzuetan inpuntuala naiz, lagunekin.



PABLO IRURETA
61 urte, dendaria

Bueno ez asko. Garai baten bai baina geruo ta gutxio. Hala ere begir-tzen diot ordena piskat eukitzeko. Erlojua ez det sekula kendu, nahiz eta gero ez begiratu.



BEGONA ALBERDI
54 urte, etxekoandrea

Bai, danetako prisia euki-tzen dot. Etxian nauala ere beti erlojuari begira ta begira, eta senarra ere ber-din. Makina bat bidar pentsau det erlojua kent-zia baina...



YOLANDA CORONADO
25 urte, langabetua

Erlojua beti soinean, du-txarako ezik. Ez naiz oso menpe bizi. Puntuala nai-zenez ordua zaintzen dut baina ez da agobiatzen nauen zerbait.



RICARDO HERRERA
51 urte, espezialista

Bai, piska bat bai. Erlo-jua beti soinean daroat eta zait sekula kentzerik bururatu. Puntuala izatea gustatzen zait eta ni ere hala naiz.



YOSUTHERMIKen
guk fabrikatzen
ditugu leihoak,
kalitate goreneko
materialez eta langile
espezializatuekin.

Santa Ana 18, behea Tel-Fax: 74 43 83

Zuzenbide berria

Udal hauteskundeetarako **BARREN KINIELA**

Zenbat zinegotzi lortuko ditu alderdi bakoitzak?



GAUR EGUN MAIATZAK 28
8



GAUR EGUN MAIATZAK 28
2/2



GAUR EGUN MAIATZAK 28
4



GAUR EGUN MAIATZAK 28
0



GAUR EGUN MAIATZAK 28
2



GAUR EGUN MAIATZAK 28
0

Zein izango da Elgoibarko Alkate?

.....


Izen-abizenak Tel.....



Erantzunak maiatzaren 26a baino lehen iritsi behar dira **BARRE**Nera.
Ez da fotokopiarik onartuko. Asmatzen duzuenon artean

TXANKAKUAko dendetan gastatzeko

25.000 pta
zozketatuko dira



BARREN astekaria. Nafarroa Plaza 2. 20870 ELGOIBAR. Tel 74 41 12

■ Familia euskaldunetan egonaldiak

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak euskalduntze prozesuan murgilduta dauden ikasleei zuzenduta, "Familia Euskaldunetan Egonaldiak" programa prestatu du aurten ere bai. Egonaldiak hilabetekoak izango dira gehienez eta uztaila eta iraila bitartean aukeratu ahal izango da. Izena emateko Udaleko Euskara Zerbitzura jo (74 43 66).

■ Senperera autobusak

Elgoibarko Izarrak hilaren 14ean, igandea, Senperen izango den Herri Urrats 95'erako autobusak antolatu ditu. Autobusaren zenbatekoa 1.000 ptakoa da eta 700 ptakoa bazkideentzat. Izena emateko elkartera zuzendu. Irteera Sigmako zubitik izango da goizeko 9etan.

■ Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko akuarela ikastaroa antolatu du hil honen 17tik ekainaren 6ra bitartean. Klaseak egunero izango dira arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Izena emateko lehen bait lehen Egur-eko lokalera inguratu arratsaldeko 6,30etatik 8etara bitartean.

■ Gaztetxearen aldeko ekitaldiak asteburuan

Gazte Asanbladak Elgoibar Gaztetxerik gabe dagoenetik lau urte igaro direla gogorarazteko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur, hilak 12, Malapen kontzertua eskainiko du 6NEMEN9k. Larunbatean, arratsaldeko 5etan errepresioaren aurkako erakusketa hasiko da Maalan, malabar, trikitixa eta txalaparta saioekin batera. 7etan manifa egingo da eta gauean lau kontzertu izango dira. 10etan Morau kantaria Txuribeltz tabernan arituko da, 11etan Lanbroa tabernan Hilzorian taldeak abestuko du, 12etan Bar Iñaki-n Marruma arituko da eta 1etan Oraikon Storbais taldea.

Hiritarren partaidetza bultzatuko du IU/EBk ordezkapenik ateraz gero



■ zquierda Unida/Ezker Batua alderdikoek Udal hauteskunderarako zerrenden aurkezpenean Udaletxearen eguneroko ihardueran herritarren partaidetza funtsezkoa dela adierazi zuten, "baldin eta Udaletxe demokratiko eta partehartzaile bat eduki nahi dugun eta hartara, 'alkaldadak' ebitatu". Udaletxearen demokratizazioaren inguruan, herriko kolektiboen sorrera eta presentzia bultzatu, maila sozialean sail berriak sortu (ingurugiroa, emakumea, gazteria...) eta guzti hauetan herritarren partaidetza erraztea dira

IU/EBaren lehentasunak datorren legealdirako. Zinegotzi bat ateratzeko asmoa dute ezkertzaileek, "hasieran asmoa Udaletxea barrutik ezagutzea da eta gero, gure programa aurrera eraman". Ekitaldian zerrenda nortzuk osatzen duten ezagutzera eman zuten. Hara hona hautagaien izenak: Juan Ignacio Ausin alkategia (argazkian ezkerretik bigarrena) Fermin Arce (argazkian laugarrena), Francisco Revert (lehen) eta Teresa Bachiller. Ekitaldian Juan Sanchez Vallejo IUko militantea (argazkian erdian) izan zen.



Errotatxok antolatutako Prebentzio Eguna burutu zen joan den larunbatean. Eguraldi ezin beroagoa, giroa ere aparta, eta jendearen partehartze zabala izan zen aipagarriena. Eguna bukatzeko, arratsaldean futbola eta gauean Koska eta Kokoteraino taldeen kontzertua izan ziren.

Udal gobernu hirukoitza osatu nahi du Elgoibarko PSEk



Elgoibarko PSE alderdiak, orain arte PNVrekin kohabitazioa izan dena hiru alderdiren arteko elkarlan bihurtu nahi du, “Jaurlaritza osatzen duten PNV/PSOE eta EA alderdien eskema gure herrian birproduzituz”. Datorren legealdirako hiru zinegotzi lortzea da PSEren helburua. Ekitaldian Guillermo Etxenike Ekonomia Diputatua izan zen (argazkian esku-man). Nieves Catarain eta Jose Manuel Herrero zinegotzigaiek adierazi zuten, PSE alderdiko lehen eta bigarren hautagaiak hurrenez hurren, Udal aurrekontuen gaia “normalizatu” eta kredituak “gero eta gutxiago

izan daitezzen ahaleginduko gara, apur bat ahaztuta dauden herriko zenbait zona (San Pedro, Sigma...) berpiztu beharra ikusten dugularik”. Etxebizitza sozialen eraikuntza bultzatzeko lan egingo dutela azaldu zuten, “Ikastolako lurretan etxe sozialak eraikitze-proiektua onartua dago; Ikastolarekin lurren jabetza negoziatzeko ordua da”. Gazteen arazoaren aurrean, edozein talderekin hitz egiteko prest agertu ziren, “orain arte Gazte-txea osatzen zuen taldea bakarrik hurreratu da hitz egitera, eta gure ustez, gazteen arazoa guztion artean konpondu beharreko zerbait da”.

Nathalia abeslari elgoibartarra Benidormeko Festibalerako abesti berri bat grabatzen izan da. “Perdon mi amor” izeneko abestia da eta egileak Samuel Martinez eta Antonio Egido dira. Argazkian Javier Riosekin, iaz bigarren saria irabazi zuenarekin, eta Egidorekin agertzen da Nathalia. Ekainaren 7an, 8an eta 10ean Tele 5etik emango dute festibala baina emankizun egunera arte ez da jakingo Nathalia aukeratua izan den ala ez. Antena 3etik ere “Lluvia de Estrellas” saiokoek Isabel Pantoja imitatzeke deitu zioten baina Nathaliak ez joatea erabaki du, berak azldu bezala, “ni ez bainaiz abeslari espainiarraren imitatzaileria”.



■ Mendi irteera

Euskadiko Mendi Federazioak haurrentzako ibilaldi neurtua antolatu du hil honen 21ean. Izena eman nahi duten haurrek Morkaikotik pasa daitezke asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

■ Bizikleta martxa

Egunotan “Euskal Herria bizi dadin, Udal abertzale eta ezkerzaleak behar ditugu” lemapean, Algortan hasi eta Iruñean bukatuko den bizikleta martxa burutzen ari da HB. Astelehenean, hilak 15, martxa Elgoibartik igaroko denez, HBk arratsaldeko 7etan Altzolan ahalik eta jende gehien batu dadin nahi du, martxari ongietorria eman eta bizikletaz jarraitzeko.

■ 1945ean jaiotako enburenko bazkaria

1945. urtean jaiotako elgoibartarrak datorren ekainaren 3an bilduko dira jaioturrearen 50. urteurrena ospatzeko. San Bartolome parrokoiko mezarekin hasiko dute eguna, bertsolari, txistulari eta dantzarien partehartzearekin. Argazkia atera ondoren lunch-a izango dute eta eguerdiko 2,30etan Herri-Gain jatetxean bazkaria. Izena emateko hiru zenbaki hauetara deitu: 74 26 91, 74 06 14 edo 74 08 54ra. Bazkariaren zenbatekoa 7.000 ptakoa da.

■ Musikeskolaren kontzertuak

Inazio Bereziartua musikeskolak kurtso bukaerako kontzertuak eskainiko ditu hil honen 18an, 19an, 25ean eta 26an Herriko Antzokian. Ostegunean, hilak 18, arratsaldeko 7,30etan hasita, musikeskolako txistulariak, tronpa hirukotea, akoridei bikotea, perkusio taldea, dantza, klarineta eta kitarra eta Inazio Bereziartua akordeoi taldea artiuko dira. Hilaren 19an, ordu berean Hauspoa akordeoi taldeak, txistularien bandak, tronpeta eta akordeoi bikoteak, kitarra eta akordeoi eta saxofofoi bikoteak joko dute.

Iñaki Garate:

"Nere ilusiorik handiena antigoaleko tren bat eukitzea da"

Elgetan bizi eta Azpeitian lan egiten du 42 urteko Iñaki Garate elgoibartarrak. Ume koskorra zenetik bere zaletasunik haundiena trenen mundua da. Zortzi urterekin miniaturazko lehenengo trenea egin zuen, eta gaur egun, erositako eta

berak egindako lauhun bat maketa dituzte etxean. Duela urte t'erdi Eusko Trenbideak-ek Azpeitian duen museoan hasi zen lanean lokomotora zaharrak konpondu eta preparatzen. Iñakiren pozerako, bere betiko afizioa lanbidea da orain.

- Zer lan egiten duzu Azpeitiko museoan?

- Museo honetan berrogeita sei tren zahar daude. Nik eta beste mutil batek ikutu batzuk eman, txukundu eta martxan ipintzeko moduan lagatzen ditugu. Oso aspaldikoak dira, batzuek ia ehun urte dituzte eta horregatik ondo zaindu behar ditugu.

- Eta ibiltzeko moduan al daude?

- Hilabetean behin antigoaleko tren horretako bat museotik atara eta Azpeititik Loiolaraino eramaten dugu. Trenbide zatia hantxe bukatzen denez ezin gara urrutirago joan. Azkenengo aldiz trenea toperaino bete zen. Hurrengo irteeran, maiatzaren 21ean, bagoi gehiago ipiniko ditugu.

- Zu zeu izaten al zara makinista?

- Hori ere ikasi dugu, bai. Ez da oso zaila tren bat gidatzen jakitea. Konplikatuena



"la zapatu edo domekero Iruñeko aireportura joaten naiz hegazkin txikiak pilotatzera"

lokomotora zahar hauek martxan jartzea da. Ibiltzen hasi baino lau ordu lehenago sua pizten dugu egurra eta ikatzarekin. Arrankatzeko tenperatura egokia lortu arte sua egin eta egin jarduten dugu. Lau orduz ibiltzen gera horrela.

- Sekula pentsatu al duzu aspaldiko trenen

bat zuretzat konponetzea?

- Horixe da nere ilusiorik haundiena, nik neure trenea eukitzea. Dana dala makina hauek prestatzea oso garestia da, milioi asko behar dira. Museoa egiteko dirua Eusko Jaurlaritzak ipini du. Erakundeen laguntzarik gabe ia ezinezkoa da horrelako

gauza bat antolatzea. Hala ere, ez dut esperantzarik galtzen eta beharbada egunen batean nere trenea eukiko dut, suertea eta horretarako dirua izanez gero behintzat.

- Beste ibilgailuak gustatzen al zaizkizu?

- Hegazkinak asko. Lehenago maketak egiten nituen, baina orain benetako hegazkinak miniaturazkoak baino gehiago gustatzen zaizkit. Ia zapatu edo domekero Iruñeko aireportuan joaten naiz hegazkin txikiak pilotatzera.

- Zaletasunak zaletasun, elgoibartar gehienek musikarekin izan duzun loturarengatik ezagutzen zaituztete...

- Halaxe da, bai. 15 urtez audio teknikaria izan nintzen "Expresión sonora" taldearekin lehenengo eta "Koska"rekin ondoren. Tren eta hegazkinez gain, musika ikaragarri gustatzen zait.

AITOR ZABALETA

Txiki BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 13. GEHIGARRIA

kastolako eskolaurrea Plaza Txikian kokatzen da. Harantza abiatu zen azken aldiz BARRENEko argazki kamara.

Atsedena dia tokatu zitzaigun eta eskaieratan behera saltaka batean ikusi genituen neska mutilak, arrosaz batzuk, urdinez besteak. Baina argazkian ikusten ditugunak gure zain genituen, hiru urteko haurren taldea. Etxetxoan sartu eta andereñoak agindutakoa jarraituz, musikaren erritmora, aparteko txotxongilo saioa eskaini ziguten.



Txiki txistea

Bidean aurrera doaz bi sagutxo pasiatzen, eta gainerik saguzaharra igarotzen da:

- Zer da hori? -galdetzen du batek.
- Nire senargaia, pilotua da eta.



Ikasteko zenbait teknika

OHO ko ikasleak, goi ziklokoak batez ere, berehala aurkituko dira ertainetan, gero bestelako ikasketak iritsiko direlarik. Guzti horietan, oraindik ere, azterketak dira ikasurtearen ebaluaketa egiteko dagoen metodologia. Alde batetik irakasle bakoitzak bere ikasgaiak lantzen ditu, hala nola, eskemak, laburpenak, azpimarraketak... Baina guzti hoietaz gain, ikasleak berak ikasteko ohitura batzu eskuratu behar ditu, hau da, ikastetxetik irten eta gero, norbera bere etxean dagoenean zer egin behar duen eta nola ikas ditzakeen ikasgai ezberdinak. Guzti hori posible egiteko, hona hemen ikasteko eta azterketak gainditzeko beharrezkoak diren zenbait teknika.

- Ikasle bakoitzak bere **IKASTEKO TXOKOA** izan behar du. Mahai bat, aulkia, argi egokia eta, hori bai, mahaiaren gainean ikasteko beharrezkoak diren gauzak bakarrik. Apunteak, boligrafoa, hiztegia... Ez musikarrik, aldizkaririk, ez eta argazkirik ere. Konzentratu ahal izatekoa ezinbestekoa da txoko pertsonala, garbia eta argia izatea, ikasteko txokoa, hain zuzen.

- Ebaluazioan zehar, eguneroko tarea egiteaz gain, ikasleak gelan jasotakoa irakurri behar du, **ULERTU** arte. Oso garrantzitsua da ikasleak irakurtzen duena ulertzea bestela ikasteko prozesua bertan behera erortzen baita. Irakurritakoa ulertu eta gero, laburpena eta eskemak egin behar dira. Astean zehar, beraz, batetik tarea izango dugu eta bestetik irakurketa, ulerketa eta eskemak egitea. Guzti honek denbora eskatzen du, ikaslearen aldetik borondate ona eta **KONSTANTZIA**.

- Konstantziak ez du esan nahi hiru ordu jarraian ikasi behar denik, inolako etenik egin gabe. Haseran batez ere, beharrezkoa eta oso lagungarria da 15 minutuan behin, gutxi gora behera, **ATSEDEN TXIKIAK** egitea, norberak gustuko duen zerbait egiteko, hau da, musika piskat entzun, merendatu, lagun bati deitu... Gero, ikasteko txokora bueltatzean, ikaslea indarberritua sentituko da, gogo gehiagorekin eta ikasten ematen duen denbora askoz probetxugarriagoa izango zaio. Horretarako ezinbestekoa da ordularia erabiltzea, ikasleak egokitu dezan bere plangintza eta berak ikus dezan nola noizean behin atsedanak egin arren badagoen ikasterik.

- Azterketa garaian, badira beste bi puntu oso garrantzitsuak: **MEMORIZAZIOA ETA ERREPASOA**.

- Azterketa egunean, urduritasunak kentzeko lehenik **ARNASA HARTU** behar da, sakonki. **POSITIBOKI PENTSATU**, azterketa egiteko eta gainditzeko gai garela pentsatuz. Galderak lasai eta poliki irakurri behar dira, eskatzen dena garbi ulertuz. Bakoitzak dakiena idatzi behar du eta galderaren bat ez jakin arren, saiatu egin behar da, irakasleari galdetuz pistatxoren bat eman dezan... Azterketa amaitu eta gero errepasatzea garrantzitsua da, akatsen bat egin badugu ere garaiz konturatzeko.

Puntu guzti hauek bata bestearen atzetik datoz: irakurketa, ulermena, eskemak, memorizazioa eta errepasoa. Denak eginez gero, askoz errezagoa egiten da azterketak prestatzea, dena azken egunerako uztea baino askoz errezagoa.



AMAIA EZENARRO
NARE PSIKOLOGIA GABINETEKOA

Ze iritzi daukazualkate izatea.....ri buruz?



Alkatea oro ona da eta herri hau oro ondo eramaten du. Aupa alkate! Segi horrela!

MIKEL DE PABLO, 9 urte



Alkatea izango banintza gauza batzuk aldatuko nituzke: jolas aretoa doan izatea, koka kolako iturriak ipiniko nituzke, txiki Guan bat, sartetxe bat eta pineta doan.

CESAR AUGUSTO MENDOZA, 12 urte



Ezta pentsatu ere! Egunero kartak irerki, egun guztia politikaz hitzeginen...

MARIA ESCOBEDO, 11 urte




Jaqueline Ouzga
13 wt vg

Galde debalde

1. Zeinekin egiten duzu amets?
2. Mendian urtaaroekin topo egin eta norekin joango zinateke?
3. Nori idatziko zenioke eskutitz bat?
4. Zeri diozu bildurra?
5. Barita magiko bat bazenu?
6. Egin dizuten bromarik handiena?
7. Lurra, ura, sua edo haizea izan nahi zenuke?
8. Beti gordeko duzun opariren bat?

1. Gustatzen jatan neska batekin.
2. Udakin, ez delako ezer egin behar, oporrak direlako.
3. Alkateari eta Pilarrera joaten den zubia garbitzeko eskatuko nioke.
4. Leku ezezagun batean, iluntasunean bakarrik egoteari.
5. Munduko hondamendi guztiak kenduko nituzke.
6. Zuazun behin lotan negoela aurpegia margotu zidaten.
7. Lurra, dena menperatzen duelako.
8. Jaunartzean erregalatu zidaten diario bat. Egunero idazten dut bertan eta giltzapean daukat, sekretu guztiak daude eta.



Catrique Ccuntkaq
6 wt vg

1. Gauza askorekin. Behin handia nintzela egin nuen amets, polita nintzela.
2. Udakin, bainatzeko, oporrak eukitzeko...
3. Zaldibarko lehengusinari. Berarekin jolastera noala esango nioke, izkutaketetan.
4. Otsoari, koska egiten du eta, Txanogorritxori bezela.
5. Margoak eskatuko nizkioke.
6. Askotan lagunek "tori" esaten didate eta gero ez diadate ematen.
7. Ura, horrela beti bainatzen egongo nintzakeelako.
8. Ez dakat, danak gustatzen jataz.


Zer da...*magia*.....?

ITZIAD LEIADISTI 12 wt vg



"Fantasiako mundu baten sartzeko era bat da. Ezinezkoak diren dibertsioak."

JULEN SAN JUAN 12 wt vg



"Magia ilusio optikoa da, mugimendu arraroen ondorioa. Adibidez kartetan, mugimendu azkarrekin ilusionatzen gara."

EIDER AZKUNAGA 10 wt vg



"Nire gelako mutilak formalak bihur dezakeena."

SODAYA LOPEZ 9 wt vg



"Jesusek egiten zuena magia da. Orain bere apostoluek egiten dute magia: Josek, Pedrok..."

JON SANDEZ 7 wt vg



"Magia gauza miragarria da. Manga batetik sartu eta ezer ez daukatela esaten dute baina gezurra esaten dute."

JON GARCIA 8 wt vg



"Untxi bat sartzen dot txapelean eta gero magia egiten dut."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



LIDIA BORREGUERO
8 urte

"Nik Atori marrazki bizidunari egingo nioke elkarrizketa eta beste gauza batzuren artean gauza bat galdetuko nioke: bera marrazki biziduna izanik ea pertsona bihurtzea nahiko lukeen nerekin jolastera etortzeko Elgoibarrera. Asko gustatuko liizaidake telebistan ikustez gain nerekin jolastera etorriko balitz."

NADIA NUNEZ
13 urte


"Marta Sanchezi gustatuko jatan egitia ze asko gustatzen zait nola egiten duen dantza, abestiak, bere erropak... Fan asko dituen, famatuen bizitza nolakoa den eta hain ondo dantza egiteko zer egiten duen galdetuko nioke."



3. Asmakizunak:

- Beti harro harro doan oihaneko erregea, ikusten baduzu zirkoan preso dagoen seinalea. Zer da?.....
- Batetik bestera ibiltzen da azpitik, zulo asko egiten ezer ikusi barik, zuk ere ez pentsa erraz harrapatzerik. Zer da?.....
- Erdian luzeena bi motzagoen artean bazter batean txikiena eta potoloena bestean. Zer da?.....

4. Zein bide egin behar du fokak arraina dagoen tokira heltzeko?



Erantzunak: 1- Lordes Arozena. 2- Kazetaria bazina nor elkarrizketa galdetuko zenuke?. 3- Lehoia, satorra, esku.

Maite Franco

"Maite" pasteleriakoa



● **Pertsona bakoitzak bere pastela al dauka?**

▶ Emakumeei bizkotxo gustatzen zaie. Gizonezkoei relanpagoa, gazteei palmerak eta bonbak eta umeei merengea.

● **Zelan jan behar dira?**

▶ Onena kafearekin edo ardo gozoarekin.

● **Zeini erregalatuko zenioke dozena bat pastel?**

▶ Bakarrik sentitzen den pertsona edadetu bati.

● **Eta zeini tarta burutik behera?**

▶ Politiko guztiei.

● **Noiz jaten da pastel gehien?**

▶ Errege egunean eta San Bartolomietan.

● **Bizitzako mementurik gozoena?**

▶ Nere hiru alabak jaio ziren egunak.

● **Eta garratzena?**

▶ Azkenengo bi ufaletan eta gurasoak hil zitzaizkidanean.

● **Badator uda eta erropak kentzeko momentua...**

▶ Mehetzeko dietak gure etsairik gogorrenak dira. Uda pasatuta ez da loditzeko beldurrik eukitzen. Igartzen dugu alde.

● **Zein izan da dendan ezagutu duzun pastelzalerik amorratuena?**

▶ Behin mutil gazte batek hamalau sagar-pastel jan zituen hogeit minututan. Eta ez zen apustua izan.

● **Oporrik onenak non?**

▶ Tarifako Punta Paloman. Mendia eta itsasoa batzen dira.

● **Zer eskatzen diozu alkate izango denari?**

▶ Herria maite eta bere alde ahalik eta ondoen lan egin dezala.

● **Karakaten 70 metroko antena ipintzen dihardute...**

▶ Zerbait entzun dut baina ez dakit gauza askorik.

● **Zeozergatik gezurrik esango al zenuke?**

▶ Gezur txiki eta inportantziarik gabekoak bai. Haundiak sekula.

● **Zer gustatuko litzaizuke irakurtzea biharko egunkarietan?**

▶ Pakea dagoela hemen eta mundu guztian.

● **Eta "BARREN"en?**

▶ Ekonomia errekuperatu eta langabezia gutxitu dela.

AITOR ZABALETA

PATIOAN ERORITAKO ENARARI

DOINUA:

Amodiua zein den eroa

Zeruetako zeharkatzaile azkarra bezain arina.

Etxe bateko barla estuan

haiz orain preso egina.

Leihaxka bati itsasirikan

hego lerdin, gorputz fina.

Nolaz sumatu haizeen kume

haize horren "haizemina"?

Enara nabar hego-zeiharra

soingaina leiho-hegian.

Askatasuna batek daki zer den?!

Jakingo ote agian!...

Baina haren izpi gardenak dira

preso denaren begian,

eguzkiaren errainu gisa

laino hertsien erdian.



JON BARANDIARAN



78 urte zituela, maiatzaren 4ean hil zen JOSE GARAGARZA OLASOLOren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ales Arrieta Jauregi



EAKo alkategaia



ADINA: 28 urte

JAIOTERRIA: Elgoibar

IKASKETAK: Ingeniaritza teknikoa

LANBIDEA: Danobateko mekanizatuko produkzio burua

EGOERA ZIBILA: Ezkongabea

ZALETASUN BAT: Argazkilaritza

LIBURU BAT: "La sonrisa etrusca"

IDAZLE BAT: Ez daukat idazle berezirik

PELIKULA BAT: "Forrest Gump"

MUSIKA MOTA BAT: Pablo Milanes

KOLORE BAT: Urdina

KIROL BAT: Eskubaloia

JANARI BAT: Esparragoak

JANTZI BAT: Txalekoa

USAIN BAT: Pertsona batzuk duten usaia

I Zeri buruz idatziko zenuke liburu bat?

Euskal Herriko egoerak ekonomikoki eta politikoki izan dezakeen soluzioei buruz.

I Estresatua zaudenean zer egiten duzu?

Elgoibartik pare bat egun alde egin.

I Lo erraza ala zaila daukazu?

Normalean erreza nahiz eta batzutan zaildu egiten zaidan.

I Gogora etortzen zaizun zure bizitzako momentu bat?

Arratekin Ohorezko dibisiora igo gineneko eguna, ni jokalaria nintzen.

I Politika antierrotikoa dela diote. Lehenengo aldiz entzuten dot baina probablemente egixa izango da.

I Zer da lehenago, eskubidea ala betebeharra? Ez da bat bestearen gainetik gailentzen, bakoitza bere mailan egon behar da.

I Besteengan onartzen ez duzuna? Gezurra eta prepotentzia.

I Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein izkutatuko? Edozein auzo erakutsiko nioke: San Pedro, San Lorentzo, San Roke... Eta, hustutako fabrikak izkutatuko nizkioke.

I Norekin pasako zenituzke gustura berriketan pare bat ordu? Aznarri bonba ipini zionakin eta Lasa eta Zabala hil zaben guardia zibilekin.

I Balorerik garrantzitsuena?

Egia esatiaz gain, sentitzia eta itxia ere bai.

I Emakumea bazina, zein lanbide izan nahi zenuke?

Top model.

I Lehen muxua, non eta noiz? Aspaldi eta Espainian.

I Txikitan alkate izan nahi al zenuen? Ez, medikua.

I Emaiguzu arrazoi bat zuri emateko botua.

Ahal dala onratuki jokatu dudalako eta gure lana ez dalako izango ideia politiko konkretuen aldekoa edo kontrakoa, ideiak eta proiektuak baloratuko ditugu eta horien alde edo aurka egingo.

GRAFOLOGIA

■ Gizon tenperamentala da. Izaera sendoa du, fortea. Sutsua eta apasionatua, ez du etsitzen bere helburua lortu arte.

■ Edozein gauza egiteko gai da pertsonalki pentsatu duena edota sozialki zin egin duena betetzeko. Bere mundu bai ideala bai eta intuitiboa ere, argiak dira baina honek ez du esan nahi Ales bietan eroso eta bere osotasunean betetzen denik.

■ Bere euskortasuna (tenacidad) goiesgarria da. Burugogorra da eta zerbait oso garbi ikusten duenean, hobe bere bidetik kentzea haize bolada bat bezain bortitza baita. Bere planteamenduak ez dira beti arrazionalak batzutan, bere erraietan sentitzen duena objetiboa balitz bezala ikusten baitu.



■ Bere arrazoiak sutsuki defendatzen ditu eta horrek komunikazio eta adiskidetasun arazoak ekar diezazkioke. Horregatik, Alesek jende leial asko izango du bere ondoan baina baita arerio gupidagaitz eta adiskide-

ezinak ere. Halere, egia baino zarata handiagoa da ez baita gai inorekin benetan etsaitzeko.

■ Bere sinadurak arrebatua, borroka eta enfrentamendu dialektikoa isladatzen ditu. Aurkakoa ematen duen arren, usoa da belatza baino. Eta norbaitek esaten dudana konprobatu nahi badu, saia dadila Alesen barruan sartu eta bere sentimenduak ezagutzen. Berehala ikusiko du samurra, sentimentala eta maitagarria dela.


Iñaki Mendieta (Grafopsikologoa)

Maiatzaren 26ra arte geratzen diren asteetan alderdi bakoitzeko alkategaiari eskainiko diogu orrialde hau.

LEHENTASUN OROKORRAK

	<ul style="list-style-type: none"> • Industriarako lurren eskaintza handitu eta konkretatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zirkulazioko puntu beltzak kendu, Urasandi, Txankakua... 	<ul style="list-style-type: none"> • Sozialki arrisku taldeak izan daitezkeenei errekurtso publikoak helarazteko mekanismoak sortu.
	<ul style="list-style-type: none"> • Udalaren demokratizazioa: gobernu batzordea guztiei irekia, plenoetan hitz egiteko eskubidea... 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteriarekiko gatazkari elkarrizketaren bitartez konponbidea bilatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen normalizazioarekin jarraitu eta etxebizitzetan politika diferentea burutu.
	<ul style="list-style-type: none"> • Udal gestioaren argitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu tasa igo. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara eta kultura uztartu.
	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa berrien ezarpena erraztu eta ahal den neurrian daudenei laguntza eman. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udalaren zorra gutxitu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lur berriak eskuratu.
	<ul style="list-style-type: none"> • Lan batzordea sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hiritarren partehartzea bultzatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen garapena bultzatu.

EUSKARA

	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntz eskakizunen plangintza burutu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udal ordenantzen garapena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Batzorde Koodinatzailea sortu.
	<ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeko langileak euskara trebatzen lagunduko dituen trebatzailearen figura sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak onartu dituen Euskararen Udal Ordenantzen aplikazioei jarraipen zehatza eman. 	<ul style="list-style-type: none"> • Begiraleen planifikazioa, elkartekin hitzarmena, euskara ikasteagatik subentzioa jasotzeko eskubidea denok izatea...
	<ul style="list-style-type: none"> • Siadecok esandako trebatzailearen figura sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udal Ordenantzak bete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Langileen hizkuntz eskakizunak bete.
	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen erabilera bultzatu, gaztelarekin batera eguneroko erabilerarako hizkuntza izan dadin. 		<ul style="list-style-type: none"> • Eskola publikoari laguntza eman D eredua aplikatzen jarraitu dadin.
	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen erabilerarako herri mailako kanpainak bultzatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeko langilegoaren euskalduntzerako politika flexiblea bultzatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen irakaskuntzarako aurrekontua handitu.

Alderdi Popularrak hauteslea aurkeztu badu ere, ezinezkoa izan zaigu beraien programa eskuratzea.

MOTZAK

Olaizaga igeriketa taldea Arrasaten

Asteburu honetan Olaizaga Igeriketa Taldeko igerilariak Arrasaten izango den txapelketan parte hartuko dute. Lau froga egin beharko dituzte 1983. eta 1984. urteetan jaiotako igerilariak: 200 metro libreak, 400 libreak, 4x50 estiloak eta 4x100 estiloak.

20 domina eskuratu dituzte Ibai taldekoek

Legazpian izan ziren joan den larunbatean Ibai Gimnasioko judokak eta 20 domina lepotik zintzilaturik itzuli ziren etxera. Urrezkoak eskuratu zuten Zuriñe Polok, Miren Mugerzak, Ganix Ostolazak, Egoitz Morak eta Aitor Gonzalezek. Zilarrezkoa Maialen Morak, Esther Idiakez, Xabi Gonzalezek eta Jon Ander Pascualek. Ondorengo guztiek brontzezko domina lortu zuten: Maria Idiakez, Joana Moreira, Zuhaitz Martinez, Aitor Mugerza, Mikel Sastre, Xabi Elorza, Ekain Jimenez, Alberto Fernandez, Unai Fernandez eta Josu Idiakez.

Gipuzkoako txirrindulari Txapelketa

Elgoibarko Lagun Taldeko jubenilek Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute larunbat honetan Legorretan. Igandean, jubenilak oraingoan ere bai, Mutrikuko "Atxukale saria" lasterketan arituko dira. 90 kmko luzerako ibilbidea da, Kalbarioa birritan igoko dute eta Elgoibartik pasatuko dira goizeko 10,30etan.



Arkaitz Martinez:

"Errekuperaketa ona eta indarra behar dira"

■ **Noiztik Lagun Taldean?** - Nere lehengusuei ikusten nien bizikletan eta txapelketatan parte hartzen eta nik ere nahi naban. 10 urte egin nitxuanian sartu nitzan Lagun Taldian. Haseran zirkuituak egiten nitxun, beranduo hasi nitzan karreteran.

■ **Zenbat kilometro egiten dituzu orain?** - Oin kadetietan nabil eta 50 km inguruko karreteran hartzen dogu parte. Datorren urtian 10 km gehixo hasiko naiz itxen baina aldapak ere gehituz. Bi urte barru, jubenetan, portuekin hasiko gera.

■ **Orain dena laua egiten al duzue?** - Ixa dana. Beti dago aldaparen bat baina normalian laua izaten da gehixena.

■ **Eta non moldatzen zara zu hobeto?** - Nahixao dot aldapia eta portua ixotzia, dana laua bada asperitu itxen naiz eta. Gainera, portua ixotzeko indarra bihar da eta lauan beti da esprinta, asko sakatu bihar da.

■ **Nongo lasterketatan hartzen duzu parte?** - Aurten lehen aldiz Gipuzkoako guztiak batera hartzen dugu parte. Orain arte hiru taldetan banatzen ginen eta lasterketak talde horien arabera izaten ziren. Oin zailagoa da, jende gehixok hartzen dau parte eta.

■ **Nola zoaz sailkapenean?** - Karrera



bakoitzian hainbeste puntu lortzen ditxuzu eta gero 30 onenak, punturik gehien lortzen ditxuztenak Euskal Herriko txapelketan hartzen dabe parte eta hango hiru onenak Espainiakuan. Nik 111 puntu daramatzat eta sailkatu naizela usten dot.

■ **Zein motako entrenamenduak egiten dituzu?** - Astian hiru aldiz entrenatzen dot eta batzuetan astebukaeran ere bai. Urtariletik aurrera ibiltzen gera bizikletan. Aurretik, negu partian, polideportibuan ibiltzen gera entrenatzen, fisikua matxakatzan dogu, korrika egin...

■ **Karrera daukazun egunean zer gosaltzen duzu?** - Nahi dotena baina normalian arraultzak eta makarroiak gosaltzeko esaten digute.

■ **Nora iritsi nahi zenuke?** - Profesionala izatera baina zaila da, Euskal Herriko bost onenek lortzen dute hori.

■ **Eta zer behar du txirrindulari on batek?** - Indarra eta errekkuperaketa ona. Aldapa eta portuak igotzerakuan azkar errekkuperatzeko kapa-za izatia.

- Adina: 14 urte
- Altuera: 1,77 m
- Pisua: 64 k.
- Txirrindulari bat: Indurain
- Karrera bat: Tour-a
- Juerga egun bat: Larunbatak Elgoibarren



Maiatzaren 5ean hil zen **LUCIO SASIAIN**
ETXANIZen sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu
 jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara
 agertu izana.



ELGOIBAR-ERREALA

Real Sociedad eta C. D. Elgoibarko beteteranoek aurrez aurre jokatu zuten joan den larunbatean Mintxetako zelaian Prebentzio Eguneako egitarauaren barruan. Ikusmin izugarria sortu zuen norgehiagokak zaletuen artean, partidua norik irabaziko zuen jakiteko baino futbol munduko "izarrak" izan direnak zuzenean ikusteko irrika izugarria zelarik. Azkenean Txuriurdinek 5, elgoibartarrek 2.



GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO ATLETISMO TXAPELKETA

Gipuzkoako Infantilen Eskolarteko Atletismo Txapelketa burutu zen joan den larunbatean Mintxetako Udal pistetan. Mintxeta-Txankakua Taldetik bi ordezkari aritu ziren. Bat Gorka Sanchez izan zen, argazkian podium-ean, hirugarren sailkatuari dagokion postuan ikus dezakeguna eta bestea, Julia Quintana. Gorka Sanchezek 3.000 metrotako lasterketan brontzezko domina lortu zuen eta Julia Quintana erretiratu egin zen distantzia berean baina nesken kategoriako lasterketan. Antolakuntza lanetan Mintxeta-Txankakua Atletismo Taldeko ordezkariak jardun zuten.

**ISTRIPIU ASEGURU
MODULARRA**

Pedro Muguruza 24 behean, ELGOIBAR, ☎ 74 26 99

KEMEN

Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Kafetegia

Letras Galegas ospatzen dihardute galiziarrek

Galiza Etxeak antolatutako "Dia Das Letras Galegas" ofizialki gaur, hilak 12, hasten direla esaten badu ere jaien egitarauak, joan den asteburuan lehendabiziko ekitaldiak burutu ziren. Aurten Rafael Dieste idazlea omenduko dute, 1899an Coruñaiko Rianxo herrian jaioa. Jailetako ekitaldi nagusiak, Urasandiko Herri Eskolako jolas lekuan burutuko dira. Aurten ere, ohitura den bezala, Galiziako gastronomia eta folkloreaken adie-

razgarriak izango dira nagusi: enpanada, lakoia, oreiak, "pulpo a feira" deritzana eta nola ez, Ribeiro ardoa. Galiziako folkloreaken erakusgarri modura, Ourenseko Diputazioaren laguntzaz, "Grupo de Gaitas e Danzas do Concello De O Irixo" taldea arituko da larunbatean eta igandean. Berbenak ere ez dira falta-



ko. Ostiral eta larunbat taren eskutik. Argazkian, gauean goizalderate Galiza Etxekoak joan den parranda egiteko aukera astebukaeran izan zuten izango da Tarantela orkes- bazkariaren bueltan.



Udal Liburutegiak antolatutako I. Idazlan eta Marrazki Lehiaketak partaidetza jendetsua izan du, sari banaketako unean ateratako argazkiak erakusten duen bezala. 400 haur baino gehiagoren lanak jaso ziren Liburutegian. Sarituak izatea denek merezi bazuten ere sei sari baino ez ziren banatu. Argazkian aurreko aldean zertxobait nahasiak daude lehen edizio honetako irabazleak: Idazlanetan onena Nagore Escudero izan zen eta bigarren Josu Gabilondo. Marrazketan lehena Ainhoa Garitagoitia eta bigarren Jon Iriondo. Txikitxoaren atalean aipamen berezia merezi izan zuten Mikel Elustondok eta Jone Feijook. Zorionak denoi!

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

ZOKOAN berri bat

SORRERA URTEA: 1990

KHDEAK: Iban Urizar, 20 urte, ahotsa; Gerar Lariz, 25 urte, bateria; Raul Gonzalez, 25 urte, tronpeta; Roberto Osoro, 29 urte, kitarra; Juan Jose De Miguel, Oscar eta Miguel teknikok, 27 urte, kitarra eta Alberto Gutierrez, 22 urte, baxoa.

DEBUTA: Plaeñtxiko Gaztetxean 1991ean.

MAKETAK: Bi, 1991n lehena eta 1995ean bigarrena.

MUSIKA ESTILOA: Definitu gabeko rock musika



Zortzi mutil gaztek osatzen dute ZOKOAN taldea, sei musikarik eta bi teknikok. 20 eta 30 urte bitarteko gazte hauen artean denetarik dago: musiko bat, kamareroa, zeladorea, transportista, fundizioan lan egiten duen bat... Baina denek dute amakomunean musikarekiko zaletasuna. 1990ean sortu zen Zokoan, garai hartan Carlos Marcos izanik abeslaria. Orditik hona gauzak dexente aldatu dira eta horien artean abeslaria. Maketa berria duela pare bat aste kaleratu berri dute. Etapa berri bat hasi da gazte hauentzat.

- **Bigarren maketa kalean dago.** - Bai, orain pare bat aste kaleratu genuen. Sei abestiz osatua dago eta 500 pezetaren truke jaso daiteke tabernetan.

- **Nola moldatzen zarete abestiak egiteko?** - Denon artean oinarria zehazten dugu eta gero bakoitzak bere instrumentuari egokitzten dio gainontzekoa. Tronpetak bere araberako musika gehitzen dio, bateriak berea, kitarrek eurena... Horrela abestia osatu arte.

- **Nork egiten ditu letrak?**

- Lehenengo musika egiten dugu eta gero letra gehitzen dio Ibanek. Letrek denetik kontatzen dute, batzuk sexuari buruzkoak dira, sentimentuei buruzkoak...

- **Bigarren maketa honekin beste etapa bat hasten al da?**

- Baietz esan daiteke. Abeslaria aldatzearekin bat etapa berri bati eman genion hasera. Oraingo hau erabat ezberdina da, askoz landuagoa, kalitate gehiago dauka. Zokoan berri bat jaio dela esan daiteke, izena mantentzen dugu baina gainontzeko guztia ezberdina da.


- **Soinu gogorragoa?** - Bai, izan daiteke. Beharbada lehen Zokoan-en jarraitzaileak ziren hainbat pertsoneri

ez zaie oraingo maketa gustatuko.

- **Ba al duzue kontzerturik begi bistan?** - Mementuz ez. Abestiak prestatzen ari gara oraindik ez baititugu nahikoak kontzertuetan parte hartzeko. Jendea joan dadila maketa berria eza gutzen, guk entsaiatzen jarraituko dugu eta geroago etorriko dira kontzertuak.

- **Zer da zuentzat Zokoan?** - Mementuz afizio bat da, lagun artean elkartu eta gustatzen zaiguna egiten denbora pasatzeko aukera bat. Afizio garestia da gainera, poltsikotik jarri behar baita dirua. Gure kasuan bakoitzak bere instrumentua erosi zuen, halako batean taldea desagertuko balitz norberak berea izan dezan eramateko.

- **Nolako egoeran zaudete musika taldeak?** - Elgoibarren ez dago laguntza handirik Udaletxearen alde. Eibarren eta Arrasaten, aldiz, Udalak jartzen dizkie entsaiatzeko lokalak eta kontzertuak egiteko aukera gehiago dituzte. Egia esan, Elgoibarren bertan ez dago elkartasun gehiegirik musika taldeen artean eta beharbada hori falta da; denon artean indar gehiago izango genuke.



San Francisco 12-14, Tel. 74 05 49



San Bartolome 18
☎ 74 08 49

ALUMINIOS LODOSO
Merkatuko azkena
daukagu leihoetan



Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut Urasandi auzoan, behekaldean. 4 gela, 2 bainu, sukalde, sala eta trasteroa. 100 metro karratu. Erreformak eginda..
☎ 74 15 69

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukalde eta igogailua.
☎ 74 37 41

PISU BAT erosiko nuke.
☎ 74 08 20
Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.
☎ 74 15 22

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.
☎ 74 32 98

Salerosketak

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatua gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)
☎ 74 15 69

NINTENDO JOKOAK saltzen ditut: "Pro Wrestling serie deportes" eta "KO Boxing".
☎ 74 21 48 Xabier

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU BAT erosiko nuke.
☎ 74 07 30 Unai

TAPIFLEX KOLTZOIA ETA BURUKOIA saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.
☎ 74 03 69 Kristina

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.
☎ 74 00 67 Martin
Jatorduetan

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT. Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 19.000 pta
☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifikazioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian
☎ 74 13 67

Lana

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK ere zainduko nituzke.
☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.
☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.
☎ 74 39 89 Mari Karmen

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 43 16 Mari Karmen
Goizez

Bestelakoak

KARPETA BAT galdu dut Muebles Antoneko espaloian. Aurkitzen duenak dei dezala.
☎ 74 08 67 Amets

Agurrak

MAIATZAK 3an 44 urte bete dituen M. Kruz Intxaustiri ZORIONAK bere ikasleen partez.

APIRILAK 23an 44 urteak bete zituen Arrate Arizmendiaretari ZORIONAK eta muxu haundi bat bere alabaren partez.

Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870


Tel/Fax: 74 42 84



Zur ta Lur

•••ALTZARIAK•••

Dekorazio proiektuak
Altzarigintza integralak
Altzari modernoaren
denda berria
Eskualdeko bakarra bere
sektorean



12 OSTIRALA

22,15 ANTZERKIA

"Pecata Minuta" KARRAKA
✓ Herriko Antzokian

23,00 KONTZERTUA

6NEMEN9

✓ Malapen
Antolatzailea: Gazte Asanblada

13 LARUNBATA

17,00 ERREPRESIOAREN
AURKAKO ERAKUSKETA

Trikitixa, malabarak eta txalaparta
✓ Maalan
Antolatzailea: Gazte Asanblada

19,30-22,15 ZINEA

"Cadena perpetua"

22,00 KONTZERTUAK

22,00 *Morau*, Txuribeltzean
23,00 *Hilzorion*, Lanbroan
24,00 *Marruma* Bar Iñaki-n
01,00 *Storbais*, Oraikon
Antolatzailea: Gazte Asanblada

14 IGANDEA

9,00 HERRI URRATSERAKO
AUTOBUSAK

✓ Sigmako zubitik

16,30 ZINEA

"Star Trek, La próxima generación"

19,30-22,15 ZINEA

"Cadena perpetua"

15 ASTELEHENA

19,00 BIZIKLETA MARTXA

✓ Altzolan
Antolatzailea: HB

22,15 ZINEA

"Cadena perpetua"

16 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Bocados de realidad"

18 OSTEGUNA

19,00 MAHAINGURUA

Gaia: Udal Hauteskundeak
Hizlariak: Alderdi bakoitzeko alkategaiak
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,30 MUSIKESKOLAREN
KURTZO BUKAERAKO
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Inazio Bereziartua
Musikeskola

DIA DAS LETRAS GALEGAS

Rafael Dieste Gonzalezen
omenez

OSTIRALA, 12

19,00 Jaien hasera.
Segidan Nueva Alaska taldea.
Jarraian pulpo dastaketa "A Morena" pulpeiraren eskutik.
22,30 Berbena Nueva Alaskarekin.

LARUNBATA, 13

10,00 Txafligu jaurtiketa.
10,30 "Grupo de Gaitas e Danzas do Concello de O Irixo".
11,00 Galiziako jakien dastaketa.
12,00 "Concello de O Irixo" taldea.
16,30 Haurrentzako jolasak sariekkin.
18,00 Galiziako jakien dastaketa.
19,00 Tarantelarekin berbena.
22,30 Tarantelarekin berbena.

IGANDEA, 14

10,00 Txafligu jaurtiketa.
10,30 Meza parrokian, gailegoz, hildako bazkideen omenez, "Concello de O Irixo" taldearekin.
11,30 Kalejira "Concello de O Irixo" taldearekin.
12,30 "Concello de O Irixo" taldearen jarduna.
17,00 "Concello de O Irixo" taldearen agurra.
19,30 Jaien amaiera.

txandak

FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
13, larunbata:	Yudego	Yudego
14, igandea:	Yudego	Yudego
15, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
16, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
17, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
18, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
19, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

14, igandea: ZABAleta

ZINEA

CADENA PERPETUA

Zuzendaria: Frank Darabont
Antzezleak: Tim Robins,
Morgan Freeman, James
Whitmore.

Stephen King idazlearen liburuan oinarrituta, Shawshank State-eko gartzelan dauden bi gizonen arteko adiskidetasun istorioa kontatzen du. Emaztea hiltzeagatik bitzita osorako gartzelaratu zuten bietako bat, eta besteak, gartzela barruan gertatzen den legez kanpoko guztia kontrolatzen du. EEBBetako gartzeletako errealitatearen berri ematen du.

REALITY BITES

Zuzendaria: Ben Stiller
Antzezleak: Winona Ryder,
Ethan Hawke, Ben Stiller.

Lelainaren graduazioa aitzaki, garagardo batzuk lagun artean edan eta bideo kamararekin une hori immortalizatzeko asmoz biltzen da lagun talde bat etxebizitza bateko teulatuan. Troy, Sammy eta Vickie lagun minak "Reality bites" izeneko bideoaren protagonistak dira. Lelainak gorroto duen tipo baten zuzendaritzapean lan egiten du telebista kate batean. Ustekabean Michael ezagutuko du, beste telebista kate bateko aurkezle arrakastatsua.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

ETXEBIZITZA KOOPERATIBA MENDARON

**ARRASATEKO
INMUEBLE-AGENTZIAK
MENDAROKO
ETXEBIZITZEN BIGARREN
KOOPERATIBAREN ERAKETA
SUSTATZEN DU**

2-3-4 gela, sukaldea,
bainugela eta komuna,
garaje individual itxi ta,
trastetegia, propano gasa
eta berokuntza individuala
dituzten etxeak.



Anboto

**INFORMAZIOA
ETA INSKRIPZIOA:**

ANBOTO INMOBILIARIA

79 20 48

☎ **77 14 11**

ARRASATE

MAHAINGURUA

Alkategaiak herriaz berbetan

PARTAIDEAK

- Gillermo Garate (EAJ-PNV)
- Pello Mendizabal (HB)
- Ales Arrieta (EA)

MODERATZAILEA

- Jose Mari Isasti (Euskadi Irratiko kazetaria)

Maiatzak 18, osteguna
Arratsaldeko 7,30etan
KULTUR ETXEAN

ANTOLATZAILEAK: ELGOIBARKO IZARRA K.E.

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia



"EZ DUZU EZER HOBETO IKUSIKO"



HURBILEKO NAHIZ URRUNEKO IKUSMEN EZIN HOBEA



Lente progresiboetako teknologia aitzindaria espezialista onenek zuri egokitua.

Zure ikusmena edozein distantziara ezin hobea izateko.

Berme onenarekin. Aitzindariarenarekin. Varilux. Ez duzu ezer hobeto ikusiko.

BERMEAREKIN:



VARILUX LENTE PROGRESIBOAK

San Frantzisko, 21 ELGOIBAR